



T-1	1. Baieztapen hauetatik adierazi GEZURREZKOA dena:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Zelula guztiek oinarri kimiko berbera izaten dute b- Zelula guztiek barneko mintzak dituzte c- Zelula guztiek ATP molekula erabiltzen dituzte energia iturri moduan jarduera zelularra sustatzeko d- Bi antolaketa zelular nagusi daude 				
T-1	2. Honako prozesu hauetatik bat gertatzen da eukariotoetan soilik, baina ez prokariotoetan. Zein da?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- RNA mezulariaren sintesia b- Erribosomen ekoizpena c- Besikulen trafikoa d- Arnasketa 				
T-1	3. Ondoko egitura hauetatik zein da egitura bakterianoa?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Mikrotubuluak, flageloa osatzen dutenak b- Zelularen pareta, zelulosaz osatua c- Plasmidoak, bakterioen artean informazioa genetikoaren trukeaz arduratzen direnak d- Guztiak egitura eukariotikoak dira 				
T-1	4. Prokarioto sinpleenak/ek...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- soilik ingurune bortitzetan bizi dira b- 1000-5000 gene izaten dituzte batez beste c- Mikoplasmak dira d- Legamiak dira 				
T-1	5. Adieraz ezazu zein den erantzun egokia:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Zianobakterioek ez dute kloroplastorik b- Landare-zelulek ez dute mitokondriorik c- Legamiek ez dute nukleorik d- Protozoоек ez dute Golgi aparatetik 				
T-1	6. Informazio genetiko DNA metatzen da, hala ere RNA osatutako geneak egon daitezke...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Zenbait arkeobakteriotan b- Mikoplasmatan c- Landare-zeluletan d- Birusetan soilik: zelula guztien geneak DNA osatuta daude. 				



T-1	7. Ondoko molekula hauek zelula guztietan agertzen dira:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Garraio-proteinak b- Proteina erribosomikoak c- Molekula anfiptikoak d- Guztiak ondo daude 				
T-1	8. Gaurko zeluletan erribozimak/ek...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Jarduera autokatalizatzailea dute b- Polipeptidoen polimerizazioaz arduratzen dira c- Polinukleotidoen polimerizazioaz arduratzen dira d- Lotura peptidikoaren eraketaz arduratzen dira 				
T-1	9. Arkeobakterioak/ek...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Eubakterioen aitzindariak dira b- Zianobakterioen aitzindariak dira c- Ez dira existitzen gaur egun d- Guztiak TXARTO daude 				
T-1	10. Bide metabolikoen eboluzioari dagokionez:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Bide metaboliko gehienak prokariotoek asmatu zituzten, arnasketa izan ezik b- Fotosintesia arnasketa baino lehenago asmatu zen c- Landare-zelulak fotosintesiaren gainera, arnasketa egiteko gai dira d- Gaur egun zelula guztiek arnasketa egiteko gai dira 				
T-1	11. Zelula eukariotoen agerpenarekin batera...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Informazio genetikoaren izaera molekularra aldatu zen: DNAk RNA ordezkatu zuen b- Fotosintesia asmatu zen c- Zelulak heterotrofo bihurtu ziren d- Mitosia asmatu zen 				
T-1	12. Zelulen eboluzioan zehar oxigeno atmosferikoaren agerpena gertatu zen...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Mitokondrioaren agerpenaren ondorioz b- Landare zelulen garapenaren ondorioz c- Zelula fotosintetizatzaileen jardueraren ondorioz d- Zelula eukariotoa agertu ondoren 				